



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

7/2024 DEKRETUA, otsailaren 26koa, Lehendakariarena, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egiten duena.

Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 7.c) eta 50. artikuluek Lehendakariari ematen dioten ahalmenaz baliatuz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2024ko otsailaren 22an egindako bilkuran aztertu ostean, Eusko Legebiltzarra desegitea eta hauteskundeetarako deia egitea ebatzi dut.

Horregatik, xedapen horietan ezarritakoa aintzat hartuz, eta Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 46. artikuluan eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoaren arabera, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Eusko Legebiltzarra desegitea eta hauteskundeetarako deia egitea.

1.— Desegin egiten da 2020ko uztailaren 12an aukeratutako Eusko Legebiltzarra.

2.— Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako deia egiten da: 2024ko apirilaren 21ean egingo dira, igandean.

2. artikulua.— Aukeratu beharreko legebiltzarkidekopurua.

Euskal Autonomia Estatutuaren 26. artikuluan eta ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 10. artikuluan ezarritakoa betez, hauteskunde barruti bakoitzeko, 25 legebiltzarkide aukeratuko dira.

3. artikulua.— Hauteskunde kanpaina.

Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 68.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, hamabost egun iraungo du hauteskunde kanpainak. Apirilaren 5eko 00:00etan hasiko da eta apirilaren 19ko 24:00etan amaituko da.

AZKEN XEDAPENA

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 46.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean dekretu hau.

DECRETO 7/2024, de 26 de febrero, del Lehendakari, por el que se disuelve el Parlamento Vasco y se convocan elecciones.

En ejercicio de la facultad que atribuyen al Lehendakari los artículos 7.c) y 50 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, efectuada la preceptiva deliberación del Consejo de Gobierno en reunión celebrada el día 22 de febrero de 2024, he resuelto disolver el Parlamento Vasco y convocar elecciones.

En consecuencia, en virtud de los preceptos citados y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 46 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco y demás legislación aplicable,

DISPONGO:

Artículo 1.— Disolución del Parlamento Vasco y convocatoria de elecciones.

1.— Queda disuelto el Parlamento Vasco elegido el día 12 de julio de 2020.

2.— Se convocan elecciones al Parlamento Vasco, que se celebrarán el domingo día 21 de abril de 2024.

Artículo 2.— Número de parlamentarios o parlamentarias a elegir.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 26 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y 10 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, se elegirán 25 parlamentarios o parlamentarias por cada circunscripción electoral.

Artículo 3.— Campaña electoral.

De conformidad con el artículo 68.2 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, la campaña electoral durará quince días. Comenzará a las cero horas del día 5 de abril y concluirá a las veinticuatro horas del día 19 de abril.

DISPOSICIÓN FINAL

Con arreglo a lo dispuesto en el artículo 46.4 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, el presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko otsailaren 26an.

IÑIGO URKULLU RENTERIA